Herri Aldizkaria
otamotz
2003ko abendua 92. alea

Langileen urteetako ahalegina zapuztuko duen itxiera

IRITZIZ-IRITZI: ARAIZ PADRON

ELKARRIZKETA: ASIER SANTILLAN ETA MARI JOSE BERMEJO

IZERDI PATSETAN: XABI ORMAZABALEK "TAKOLO" BEKA LORTU DU

ESKOLA PUBLIKOA

J. M. IPARRAGIRRE INSTITUTUA
Tel.-fax: 943 72 14 03 - 943 72 14 13
e-mail: jmiparragirre@edunet.es
Sta. Barbara bidea z/g.
20700 Urretxu

Tel.-fax: 943 72 12 14
e-mail: 012284aa@hezkuntza.net
Sta. Barbara bidea z/g.
20700 Urretxu

ARGAZKI ZAHARRA

50eko hamarkadan Gabonetan kantatzera ateratzen zen koadriletako bati Zumarragako plazan ateratako argazkia.
Zutik: Jesus Mari Landa (Coppi), Jose Inazio Badiola, Migel Angel Galarza (Katxelo) eta Jose Luis Idiakez.
Makurtuta: Kandido Mendizabal eta Edorta Linazasoro.

Aldizkari honek **Eusko Jaurlaritzako Kultura Saila** eta **Hizkuntza Politikarako Sailordetzak, Gipuzkoako Foru Aldundiko Kultura** eta **Euskara Departamenduak, Urretxuko udalak** eta **Zumarragako udalak** emandako diru laguntza jaso du

Argitaratzailea: Zintzo Mintzo Euskaltzaleen Elkartea.
Labeaga kalea 12, 20700 Urretxu. Tel: 943 03 64 74 / 605 71 87 73.
Koordinatzailea: Asier Zaldua **Erredakzio kontseilua:** Unai Alzelai, Alex Areizaga, Aintzane Arizmendiarrieta, Jon Balenziaga, Gorka Erostarbe, Maider Hernando, Jonmikel Insausti, Itziar Ormaetxea, Jon Ormazabal, Amaia Pildain, Igor Susaeta, Marian Toledo, Asier Zaldua.
Diseinua: Sebas Iturrioz. **Informatikaria:** Jonmikel Insausti.
Inprimategia: GOI DESIGN - Zumarraga
Lege Gordailua: SS-742/96 **ISSN:** 1136-7318 **Tirada:** 2.000 ale.
Otamotz aldizkariak ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik.

colors
arropa informala
Kalebarren, 12
Zumarraga
943 72 40 57

Palacio Oriental
Txinatar jatetxea
10 urte Urretxun!
Eskerrik asko zuen fideltasunagatik.
Urteurren egutegia doan gure bezero guztientzat.
☎ 943 72 52 43 - 609 73 19 11
Labeaga, 33 H - Urretxu

PLAZAOLA
ITURGINTZA
Bide-Zar 5 ZUMARRAGA
943 72 13 70

UROLA
ELEKTRATRESNAK
☎ 943 72 02 15 - Faxa 943 72 52 91
Secundino Esnaola 2, ZUMARRAGA

EHNA eguna

Hilaren 14an EHNAren Tramitazio Eguna izan zen Urretxu-Zumarragan. Hala, egun guztian zehar, Urretxuko Kultur Etxean Euskal Herriko Naziotasun Agiria egiteko aukera izan zen. Dozenaka urretxuar eta zumarratarrek aukera aprobetxatu eta EHNA tramitatu zuten.

Oraindik EHNA egin ez baduzue, garaiz zabiltzate. Izan ere, Urretxuko Kultur Etxean dagoen EHNA bideratzeko bulegoa uda bitartean zabalik izango da: astearte eta ostegunetan 18:30etatik 20:30etara. EHNA eskuratzeko hiru argazki eta erroldatze agiria eraman behar dira eta 12 euro ordaindu. Dagoeneko 300 herritar inguruk tramitatu dute EHNA Urretxuko Kultur Etxeko bulegoan.

Pinu bilketa

Aurten ere, iaz bezala, "Gabonetako pinuen bilketa" egingo du Sasieta Mankomunitateak. Bilketa hau Eguberrietako jaien ondoren hasiko dute Sasietako herri guztietan. Pinuak zaborrontziaren aldamenean utzi behar dira apaingarririk gabe. Bilketa Zumarragan urtarrilaren 15ean izango da, Urretxun 16an eta Legazpin 17an. Bilketa goizez hasiko denez, pinuak bezperan utzi behar dira. Pinu guztiak bildu ondoren, txikitu eta konpost egitera bidaliko dira Ormaiztegira (konposta egiteko Gipuzkoan dagoen planta bakarrera). Konposta, hondakin organikoak eraldatzen natural baten ondorioz sortutako lur betxaren antzeko ongarria da.

Kaleak garbitzeko makina berriak

Zumarragako kale garbiketaz arduratzen den FCC enpresak eta Zumarragako Udalak orainarte zuten ituna beste 7 urterako luzatu dute. Zumarragako Udalak 336.383,75 euro (gehi kontsumo prezioen indizearen urteko igoera) ordainduko dizkio urtero FCCri herriko kaleak garbitzearen truke.

Itun berriak hainbat hobekuntza jasotzen ditu. Hala, FCC enpresak makina gehiago erabiliko Zumarragako kaleak garbitzeko, orainarte garbitzen ez zituen herriko hainbat txoko garbituko ditu, garbiketa maiztasun handiagoz egingo du eta orainarte eskaintzen ez zituen hainbat zerbitzu eskainiko ditu.

Kontratu berrian jasotakoaren arabera, FCCk, orainarte eskaintzen zituen zerbitzuez gain, kaleetatik elurra kenduko du, markesinak, Antioko baseliza ingurua eta hilerria garbituko ditu, zakurren gorotzak jasoko ditu horiek botatzeko jarriko dituen zaborrontzietatik, herri erdialdea egunero ureztatuko du eta auzoak astean behin ureztatuko ditu.

Horrez gain, FCC enpresak bulegoa ireki du Urola kaleko 3an. Bertan, Zumarragako kale garbiketaren arduradunak herritarren premiei erantzungo die.

Itsaski zozketa

Argazkian Aitor semearekin ikus dezakezuen Anjel Arnaizek irabazi zuen Zintzo-Mintzoren azaroko itsaski zozketa. Abendukoa, berriz, Amaia Osinaldek irabazi zuen. Hurrengo zozketa urtarrilaren 2an izango da. Zorte on guztiei!

Mutua General de Seguros

Jose Luis Balenziaga

Areizaga, 3 URRETXU tel: 943 722599

Gazte Asteko kartel lehiaketa

Azaroaren 20an aste honetan bertan hasi den Gazte Astearen kartel lehiaketako sari banaketa izan zen Zumarragako Udaletxean. 7 eta 10 urte bitarteko gaztetxoen taldean, Ikastolako Ane Agirre eta Oihana Bikuña izan dira irabazleak. Bigarren saria Itziar Juantorenak eta Lucia Irurek irabazi dute eta hirugarrena, berriz, Gorka Arizmendik. 11 eta 13 urte bitartekoentzako mailan La Salle-Legazpi ikastetxeko Dani González eta Mikel Mateo izan dira irabazleak. Bigarren saria Daniel García eta David Panaderok irabazi dute eta hirugarrena, berriz, Oihane Arruabarrenak. Zumarragako Udaleko Gizarte Zerbitzuek antolatzen duten lehiaketa honetara 250 lan aurkeztu dira.

Hauteskunde osteko hilabeteetako herri plataformen balorazioa

Legazpi, Urretxu eta Zumarragako ezker abertzalearen herri plataformetako ordezkariek maiatzaren 25eko hauteskundeen ondoren hiru herrietako udaletxeetan jazotakoen balorazio politikoa eskaini zuten Amalur elkartean.

Lidia Lacalle legazpiarrak, Jon Mikel Irigoras urretxuarrak eta Juan Antonio Torner zumarratarrak, "herri plataformen eskubideak ez direla errespetatzen" eta "herritarrek aukeratutako zinegotziek euren tokia ez dutela ziurtatua" salatu zuten. "Dena den, gure herrien alde lanean jarraitzen dugu: Udaletako komisioetara joaten gara, herrietako ordezkari politiko zintzoenak baikara. Hala, bizitza politikoan bere poltsikoa bete bakarrik egin nahi dutenei aurre egiteko eta koloreak ateratzeko gai gara".

Bestalde, hiru plataformetako ordezkariek, PSE, EAJ, EA eta IUko alkate eta zinegotziei "putxerazoaren aurkako hitz politak alde batera uzteko eta herritarren borondatea onartzeko" eskatu zieten.

Ildo horretan, hiru plataformek hainbat erabaki hartu dituzte. Pagotxeta plataformak PSEk eta EAk Zumarragan dituzten bi zinegotzi postu eurei dagozkiela dio eta, hala, PSE eta EAri gutun bana bidali diete bi postu horiek plataformari uzteko eskatuz.

Urretxun, Herribide plataformak ere bi zinegotzi postu berezkotzat aldarrikatzen ditu. Jon Mikel Irigorasek esan zuenez, "aulki bat Ezker Batuak kendu zigun eta bestea EA-PNV koalizioak. Ezker Batuko zinegotziak kargua utzi du eta bere lekua hartu behar zuenak, gurekin solidarizatzen dela esanez, uko egin dio kargua hartzeari. Herribide plataformatik eskerrak eman nahi dizkiogu erabaki hori hartu izanagatik. EA eta PNVri ere guri lapurtu ziguten aulkia itzultzeko eskatu nahi diegu".

Herri Aldizkaria Otamotz
aldizkarian publizitatea sartu nahi baduzu, deitu 943 03 64 74 telefonora.
Merkea eta ona!

Yarmanki
Edergintza
Edergintza tratamenduak
Depilazioak
Solarium
Labeaga, 2 URRETXU ☎ 72 25 13

Eskulanetarako eskaiola, pintura edo besterik behar baduzu zatoz hona
TARTURO
Ipeñarrieta, 4 ☎ 943 72 14 20
URRETXU

ETXABURU
merenda-lekua
S. Barbara bidea
☎ 943 72 22 77
URRETXU

GUREA
Iturgintza
Bainurako altzariak
Gas instalazioak
Berogailuak
Bainuak...
Barrenkale 17- ☎ 72 12 67
20700 URRETXU

Azkoitia-Urretxu bidegorria datorren urtean irekiko da

Luis Mari Oiarbide Garapen Jasangarrirako Foru Diputatuak eta Pello Gonzalez Urretxuko alkateak Ibai-Eder eta Barrendiolako urtegiak lotzeko obra eta Urretxu eta Azkoitia arteko bidegorria zertan diren azaldu zuten Urretxuko Udaletxean eskainitako prentsaurrekoan. Euren esanetan, Ibai-Eder eta Barrendiolako urtegiak lotuko dituen ubideari esker, Urola Garaiko ur-horniketa arazoak bukatuko dira. Oiarbide eta Gonzalez Azkoiti eta Urretxu bitarteko bidegorriaz ere mintzatu ziren. Bidegorria Urolako trenbidetik joango da. Horretarako, zubiak zeuden tokian oinezkoentzat pasabideak egingo dira, trenbidea asfaltatuko da eta tunelak txukundu eta argiztatuko dira. Bidegorri hau datorren urtean irekitzea espero da.

Salegik Euskadiko Txistorra Lehiaketa irabazi du

Hilaren 12an Ordizian Euskadiko VI. Txistorra Lehiaketa izan zen. Lehiaketa honetara Euskal Herri osoko 48 harakin aurkeztu ziren eta irabazlea Fernando Salegi zumarratarra izan zen. Zorionak Fernando!

Santa Lutzi feria jendetsua

Aurtengo Santa Lutziak sekula ezagutu diren jendetsuenak izan direla esatea ez da gehiegizkoa izango. Zer zen hura! Larunbata izanik eta eguraldi bikaina lagun, Euskal Herri osotik etorritako milaka eta milaka lagun bildu ziren Urretxu eta Zumarragako kaleetan. Ferian salgai zegoen ganadu kopurua ere sekula baino handiagoa izan zen. Hona hemen honen guztiaren adierazgarri diren hiru gertaera: ferira zetozenek osatutako auto ilara Ormaiztegiko errotondaraino heldu zen, ganaduzaleek ekarritako abere guztientzako tokirik ez zegoen eta zenbait unetan telefono mugikorra erabili nahi zuen jende kopuru altuak kolapsoa sortu zuen.

BIONA
AROZTEGIA
Altzariak neurrira
☎ eta faxa: 72 02 55
Erratzu, z/g URRETXU

Argitarapen honen edizioko laguntzaile:
En la edición de esta publicación colabora:
kutxa
fundazioa
fundación

EDURNE
JANTZIDENDA
Piedad, 18 ☎ 943 721417 ZUMARRAGA

Lanbroa
- Dietetika
- Estetika
Bidezar, 7 ☎ 72 36 52

Ferretería BRAVO, S.L.
INDUSTRIARAKO OSAGARRIAK -ELEKTRAGAIAK
BURNIZKO TRESNERIA
Legazpi, 4 etxeazpia eskuina
☎ 943 72 40 12 Faxa: 943 72 54 31 ZUMARRAGA

Keros Enmarkatzeak
Arte ederrak
Dekorazioa
Opariak
Labeaga, 35 Urretxu ☎ 72 41 61

Araiz Padron

60 minutu Soton

(40 minutuko bisitaldia + 10 minutuko patetismoa)

Maiatzean atxilotu zuten Miren Josu, eta ordutik azaroan izan dut bere begiak aurrez aurre ikusteko lehen aukera.

Luze egiten da bidaia. Etenaldi bat beste atxilotu euskaldun bat bisitatzera doazen bi lagun jasotzeko. Bigarrena, sensitsibilitate apur bat duen edonor deprimitzeko soilik sortu diren errepideetako taberna horietako batean, pilak berriz kargatzeko. Hirugarren bat, bide egokitik goazela ziurtatzeko... Azkenik, Soto gure zain.

Edifizio barrenera sartzean hasten da benetako zirkoa. Lehenik eta behin sarrerako atea. Ixten den momentuero egiten duen zarata hiltzaile harekin argi uzten digute egonaldia deseroso bilakatu nahi digutela. Leihatila baten atzean dagoen tipoak ez dizu aurpegira ere begiratzen, baina tamalez berak onartu behar du zure bisita. Zain uzten zaituzte, eta horrek aukera eskeintzen dizu, ordu horretan bisitan etorri diren beste hainbat senideri arreta jartzeko. Izugarria mazedonia; ijituak, hegoamerikarrak, indioak, euskaldunak...

Gutxi-asko bost minutu igarotzen direnean, beste funtzionario bat agertzen da ate baten aurrean. Ordu horretan bisita dugunon NAN guztiak ditu eskuan eta banaka deitzen digu; helburua: metal detektagailu batetik osorik ateratzea. Emakume edadetu bati tokatu zitzaionean, barnean sortzen zaizun amorrua areagotu egiten da. Makinaren barnetik pasatzen zen bakoitzean Piiiiii!!!!!! madarikatu hark delatatu egiten zuen. Berriro atzera, eta berrio aurrera... Hiru aldiz. Azkenean emakumeak esan zuen arte: "son las evillas de los zapatos, pero no me los tendré que quitar ¿no?". "Sí señora. Quíteselos". Emakume gaixo harentzat alaba ikusteak suposatzen dion esfortzu mingarria bikoiztu egin zen: ixil-ixilik makurtu, zapatak kendu eta ospitaletan jartzen diren patuko horietako batzuk ezarri behar izan zituen.

Behin guztiak pasatuta, bigarren sala batean edukitzen zaituzte zain, izan ere, aurreko bisita ez da oraindik amaitu. Harrigarria da orduan itxaronaldi labur baina luze horretan nabari den isiltasuna. Ez. Jendea ez dago isilik, baina dituzten konbertsazioak isiltasun dira. Beste bost minutu. Oin hotsak entzuten dira orduan, eta bat baino gehiagotan han egondakoek abisatzen gaituzte bisita amaitu eta gure txanda dela. Urduri jartzen gara guztiok eta aterantz hurbiltzeko saiakera ere egiten dugu. Baina badirudi NAN-ak zituen tipoari ez zaiola bere interpretazio bikaina egiteko denbora amaitu, eta han agertzen da "eh, eh, tranquilos!!!" esanez. "Tranquilo tu padre, cabrón!", dudarik ez dut guztiok berdina pentsatu genuela.

Korridore luze bat zeharkatu, beste ate bat igaro, lorategi antzeko bat, iturri eta guzti, pasatu (Miren Josuri aipatu genionean, lorategi haren berririk ez zuela esan zigun. Eta zuk pentsatzen duzu: gainera eskertu egin beharko diegu paseo turistiko hori eskeini izana!), beste korridore batera joan eta azkenik gela erraldoi bat kabinaz betea. Gelaren beste aldean Miren Josu ikusten duzu, pozaren pozez, agur egiten eta saltoka. Orduan zu ere agur egiten hasten zara eta hankak korrika egitera behartzen dituzu, izan ere, denbora aurrera doa eta Soton ez dituzte segunduak oparitzen.

40 minutuak pasatzen direnean ez dakit zeinek (eta ez dut jakin nahi ere), atxilotuaren telefono seinalea itzaldu egiten du, a la puta calle esan nahiko baligu bezala.

Eta orduan aurretik atzera egindakoa, atzetik aurrera egin beharra. Korridorea, lorategia, korridorea, ate bat zabaltzea itxaron, NAN guztiak berriro irakurri eta era berean bakoitzari berea itzuli, eta beste korridore batetik kalera. Baina bisitan joan garenak ez gara sartu garenak. Aurpegian azaldu ezin daitekeen espresio bat daramagu guztiok.

Eta orduan, berriro ere kanpoan gaudenean, errealitate zikin hori ahazten laguntzeko asmoz edo, irribar egiten saiatzen gara.

Baina ni behintzat, berehala konturatu nintzen, jada, beranduegi zela, ezer ez zen berdina izango. Dagoeneko bihotza betirako deshidratatua nuen.

*Miren Josu ikustean eta bisita amaieran agur esatean sentitu nituenak berari kontatuko dizkiot soilik, etxeratzen denean.

Gabonetan loteria erosteko ohiturarik ba al duzu?

Pablo Azkoitia

Gabonetan jokatzen dut gehienbat. 14.000-15.000 pezeta jokatzen ditut urtero. Ez zait sekula tokatu, baina noizbait dena batera tokatuko balitzait mareatuko nintzateke!

Carmen Franco

Gabonetan loterian jokatzeko aukera dut, bai. Batez ere partizipazioak erosten ditut, egunero izaten naizen tokietan: okindegian, kafetegian... Egunero izaten zaren toki horietan tokatzen bada eta hartu ez baduzu...

Ana Perez

Gabonetan urtean zehar baino loteria gehiago erosten dut. Batez ere senarrak erosten du, egunero ibiltzen den tokietan eta kanpora joaten den bakoitzean.

Jokin Oliveira

Koadrilako lau lagunen artean lau dezimo erosten ditugu. Ez dut gehiegi jokatzen, beraz. Ez zait sekula tokatu, baina, esperantza ez da sekula galtzen. Aurten tokatzen bazait, deituko dizuet!

MODAYANG

Arropa, zapatak eta osagarriak. Kalitaterik onena, preziorik onenean!
Zatozte gure denda ezagutzera, hemen aurkituko duzue Gabonetako oparia!

Labeaga, 43 behea - Urretxu ☎ 943 53 48 68 - 609 731 911 - 629 331 998

Muntaia eta instalakuntza elektrikoak
Enpresa mantenua
Argiteria publikoa

Denda: Ipeñarrieta 4, ☎ 943 72 09 50
Tailerra: Mugitegi, ☎ 943 72 42 66
Mugikorra: 919 442 617

20700 URRETXU

Piedad kalea, 14 ☎ 943 72 08 19
ZUMARRAGA

Belardenda, dieta eta errejimen elikadura
Labeaga 30 ☎943 72 27 80
URRETXU

PAKO VIERBUCHER

Ezkontza erreportajeak
Argazki estudio eta artxiboa
Prozesu digitalak
Bideo profesionala
Argazkigintza materiala

Legazpi, 5
☎ 72 11 55
Zumarraga

Labeaga, 43
☎ 72 16 81
Urretxu

MAPFRE

Aseguru etxea

S.Esnaola, 6 ZUMARRAGA
☎ 72 20 00 faxa: 72 24 00

Asier Santillan: giza es

Urretxuarrak 11 urte daramatza gerrate

11 urte pasa dira jada Asier Santillan urretxuarra Kroaziara gerra pairatzen ari ziren haurrei laguntzera joan zenetik. Ordutik, Asier gerra bizi izan duten beste hiru herrialdetan izan da giza eskubideen berme-emaile lanetan: Bosnian, Kosovon eta Angolan. Gizatasunak bultzatuta hasi zuen lana, lanbide du egun. Ekainaz geroztik Kosovon ari da lanean, baina Gabonak ospatzera etxera etortzeko aukera izan du. Bera eta gu ez bezala, hemen eta han, jende asko ez da Gabonak behar bezala ospatzeko tenorean. Hori eragiten duten, eta berak gertutik ezagutzen dituen, nazioarteko gatazken inguruan hitz egiten izan gara Asierrekin.

Oso gaztetatik al duzu nazioarteko gatazken inguruko jakinmina? Zerk piztu zuen jakinmin hori? Nola asetzen zenuen?

Atzera begira jartzen naizenean liburu pare bat ikusten ditut, beno hiru, Ivo Andric-en "Un puente sobre el rio Drina", Sholohov-en "El Don Apacible" eta Gorkiren "La Madre". Ez dakit garai hartan nazioarteko gatazken inguruko jakinmina nuen ala ez, ez dut uste, baina bidaiatzeko gogoa eta hain zuzen Europako ekialdea ezagutzeko gogoa liburu horiek piztu zizkidaten. Txikitan aurkitzen nuen guztia irakurtzen nuen.

> "*Paso del Estrecho* operazioan bizitakoak piztu zidan atzerrira laguntzera joateko gogoa"

Zure "ibilbidea" Gurutze Gorrian hasi zenuen, nola gogoratzen dituzu urte haiek? Oso argi al zenuen noizbait atzerrira laguntzera joango zinela?

17 urterekin ohiko soldaduska ez egitearren, Gurutze Gorrian sartu nintzen, hala ere barruan egonda bolondresen artean oso jende fina aurkitu nuen, eta bertan jarraitzea erabaki nuen. Garai hartako Aitor Larrañaga, Uri, Enbil anaiak, Villar eta beste askok ezeren esperoan sekulako lana egiten zuten. Gaur egun oraindik Urretxu, Zumarraga eta Legazpi mailan nire ustez behar bezala errekonozitu ez den lana egiten zuten. Asteburu askotan, jendea festetan zegoen bitartean, Aparizioko postuan bolondres asko azaltzen ziren eta sekulako anbiente ona zegoen. Horrela, "etxean" sudurra sarturik, 1989. urteko uztailean

kubideen berme-emaile

ak pairatu dituzten herrialdeetan lanean

Algeciras aldera joan nintzen hango Gurutze Gorriari "Paso del Estrecho" delako operazioan laguntzeko. Beharbada, beste pare bat aldiz errepikatu nuen esperientzia horrek ireki zidan atzerrira laguntzera joateko gogoa.

Lehenik Kroaziara joan zinen, nolatan? Norekin? Zer egiteko? Zer aurkitu zenuen? Esperientzia gogorra izan al zen lehen hura?

Kroaziara lehenengo aldiz unibertsitate garaian, 1992. urtean, Euskadiko Gazte Kontseiluaren bitartez joan nintzen. Han Suncokret deitzen zen Erakunde Ez Gobernamental (EEG) batentzat errefuxiatu kanpo batean bertako umeekin begirale lanetan aritu nintzen. Oso garai gogorrak izan ziren, gerratea pil-pilean zegoen eta

Kosovotik Euskal Herrira begira

Nola ikusten da handik Euskal Herria eta euskal gatazka? Zure esperientziak Euskal Herrian gertatzen dena ulertzen edo beste era batera ikusten lagundu al dizu?

Euskal Herriak niretzat gaur egun ez du gatazka soil bat pairatzen, gatazka anitz ikusten baititut. Eta agian kanpoan egoteak ikuspuntu plural hau eman dit. Besteak beste, alde batetik argi daukat independentzia zaleen eta ez zaleen arteko gatazka hor dagoela. Bestetik, ETA eta estatuen artekoa, ETA eta euskal gizartearen artekoa ere hor dago, euskal gizartearen gehiengoa eta PPren gobernuaren artekoa, eta alderdi politiko ezberdinek beraien artean dituzten gatazkak ere ikus daitezke. Nola ez gatazka horiek guztiak ez ditugu intentsitate berdinez ikusten eta herriak ez ditu modu berean pairatzen. Hildakoak hor daude, eta baita hildakoen senitartekoak ere. Perez Rojas psikiatrak mundua bi pertsona taldeetan banatzen zuen, talde bat seme-alabaren bat biolentziaren eraginez galdu dutenek osatuko lukete eta bigarren taldea beste gizaki guztiek. Seme-alabaren bat galdu dutenek mundua beste ikuspegi batetik ikusten dute, beti. Ideia hau gure etxera ekarriz, gaur egun borroka armatua aurrera eramatea, non eta Europako mendebaldean, ez dut ulertzen eta indarkeriari ez diot inolaz ere ez inongo puntu positiborik ikusten. Beraz, euskal herriaren (minuskulaz) onerako ETA desagertu egin beharko litzatekeela pentsatzen dut. Gatazka armatuen erdian sartuta gauden guztiok beti galtzekoak dauzkagu. Gainera, zenbat eta hildako gehiago mahai gainean, orduan eta zailagoa da bake akordioetara heltzeko bidea. Zailagoa aldeentzako eta zailagoa herriarentzat, gatazka lehen pertsonan pairatzen duen euskal gizartearentzat.

Nola ikusten dituzu Euskal Herriko etorkizuna eta balizko irtenbideak?

Ibarretxe plana gora eta behera dabil, eta, nola ez, puntu positibo asko ditu. Baina Euskal Herriak behar duena, gizarte guztiarentzat akordio plurala lortzea da. Oposizioaren alde garrantzitsu baten onarpenik gabe, planak soilik alderdi batzuen ikuspuntua islatzeko arriskua du. Hala ere, eztabaida sortu du eta eztabaida ona da. Eztabaidarik gabe, alde ezberdinen arteko elkarrizketarik gabe, ez dut inolako etorkizun positiborik ikusten Euskal Herriarentzat.

Zer inpresio jasotzen duzu itzultzen zarenean?

Iaz Euskal Herrian ELA sindikatuarentzat lan egiten izan nintzen eta bertan gure gizartearen oinarriarekin lan egiteko eta arazoak, ideiak, elkartrukatzeko aukera izan nuen. Garai hartan, gizartea geroz eta polarizatuagoa dagoela eta ikuspegien arteko ezberdintasunak geroz eta haundiagoak direla ikusi nuen. ETAren indarkeria gaitzestekoa da, baina PPren gobernuak eta bere politikaren jarraitzaileek egiten dutenak ere ez du eguneroko bizitzan inolaz ere laguntzen. Ezinezkoa da egunkarien itxierak, alderdien ilegalizazioak eta presoen aurkako torturak ez salatzea edota onartzea. Justiziak ez luke alderik izan behar. Gurekin, berriz, ez da hala gertatzen eta botere judiziala askotan alderdikerietan sartzen da.

Nola ikusten dute Euskal Herria zurekin lan egiten dutenek? Zer esaten diezu?

Euskal Herriaren aurrean dagoen desinformazioa oso garrantzitsua da. Askok eta askok Euskal Herriak zer nahi duen galdetzen didate, eta nik, nik neuk nahi dudana azaltzen diet, Euskal Herria anitza dela azaltzen diet. Askotan Euskal gatazka ikuspegi etniko batetik azaldu nahi didate eta hori ezin dut onartu, abertzaletasuna ikuspegi ideologiko batetik azaltzen diet. Irlandako prozesuak hango gatazka konpontzeko balio duen bezala, Balkanetan gertatutakoak Balkanetako gatazka azaltzeko soilik balio baitu. Gatazka guztiak ezberdinak dira eta txuria eta beltzaren artean kolore asko daude.

Asier, ezkerretik hirugarrena, Jugoslabia zaharra osatzen zuten herrietan jaiotako lagunekin.

irtenbiderik ez zen ikusten. Nik, gainera, 22 urte nituen eta gerrate baten barruan sartzea, horrek dakarren krudeltasunarekin, ez nuen oso ondo eraman. Bertatik itzuli eta hilabete batzuetara "lurra hartu" nuen. Bost urte pasa ondoren Kroaziara itzuli nintzen Madrilgo EEG batentzat profesional gisa lan egiteko eta hilabete asko eman nituen 92an ezagututako jendearekin kontaktatu baino lehen. Askotan, mendebaldeko estatu bateko bizilagun bezala, Jugoslavia ohian urte haietan Europak ezer ez egitearen errudun sentitzen naiz. Atzera begiratzean, Europak egindako "paso"-a benetan lotsagarria izan zen. "No Man's Land" filmean soldadu frantsez batek dio sarraski baten aurrean parte hartzen ez duena sarraski horren konplize bihurtzen dela, eta ideia honekin oso ados nago.

Angolan ere izan zinen... Nolatan? Norekin? Zer lan egin zenuen?

Kroazian egon ondoren, Bosniara pasa nintzen eta handik Kosovoko sarraskia jarraitu nuen 2001. urtean etxera itzuli nintzen arte. Hemen urte bat eman ondoren, Angolara Nazio Batuekin joan nintzen. Angola 40 urteko gerrate luze bat pasata bake prozesu zail batean sartuta zegoen eta Nazio Batuekin Giza Eskubideen egoera begiztatu behar genuen. Batetik UNITA gerrilako buruekin kontaktuak eduki eta bake planaren garapena ikuskatu, eta bestetik, angolar gizarteko erakunde ezberdinekin Giza Eskubideen garapena eta ezagutza bultzatu. Sei hilabete pasa hondoren Nazio Batuen misioa itxi egin zen eta MSF (Mugarik Gabeko Sendagileekin) beste hilabete bat pasa nuen misio berri bat irekitzen.

Ondoren Kosovon, zenbat denbora daramazu bertan? Zertan?

Honako hau, lehen esan dudan bezala, ez da nire lehendabiziko aldia Kosovon. Lehenengo aldiz 99an, NATOren bonbardaketak eta gero, izan nintzen EEG batentzat emergentzia, koordinaketa eta logistika lanak egiten. 2000. urtean itzuli nintzen eta, EGG-ak alde batera utzita, OSCErekin (Segurtasuna eta Kooperazioaren aldeko Erakundea Europan), Giza Eskubideen (GEE) Begiraile bezala lan egiten hasi nintzen. Orain, berriz, ekainetik hona, OSCE-ren GEE Sailan nago baina aholkulari lanak egiten. GEE arazoak identifikatu ondoren, administrazioak errepikatu ez edo konpondu ditzan analizatu egin behar dira eta Europako estandarrak erabiliz irtenbideak eta ekintzak aholkatu behar ditugu, eta hauei nola ez, jarraipena egin. Oso lan teknikoa da, baina zuzenbidea ikasi duenarentzat interesgarria.

> "Sarraski baten aurrean parte hartzen ez duena sarraskiaren konplize bihurtzen da"

Zein da zure lanaren alderik gogorrena? Halako lan batetik "deskonektatzerik" ba al dago?

Arazoek izen-abizenak dituztela ezin dela ahaztu eta askotan paretaren aurka jotzen duzula inongo erantzun positiborik gabe. Eta deskonektatzeaz, ba zer esan, nazioarteko egoera dagoen bezala ikusita nahiko zaila da mundu zakar honetatik ihes egitea... zorionez mendietara mediak askotan ez dira iristen, baina benetan deskonektatzea oso zaila da.

Bizi izan duzun unerik latzena?

Pare bat aldiz beldurra eduki dut. Kosovoren gatazka pil-pilean zegoenean, errefuxiatuen egoera Montenegron nolakoa zen hobeto ezagutzeko, Milosevicen muga kontrabandista batzuekin ilegalki pasa behar izan nuen. Baina unerik latzena Kroazian "ustasha" edo ultranazionalista batzuekin izan nuen. 6 ordu erretenituak egon ondoren, justu-justu atera ginen.

Pertsona ezagun eta baliagarri asko ezagutzeko aukera izango zenuen... nor azpimarratuko zenuke?

Bernard Kouchner, Sadako Ogata eta Sergio Vieira de Melo ezagutzeko aukera izan dut, baina norbait aipatzekotan pare bat hartuko ditut: Angolako Malanje probintziko gotzaina, arabarra den Luis Maria Perez de Orraita, eta Hegoafrikako Richard Goldston epailea. Beraiekin solasean aritzeko aukera izatea plazerra da.

Gatazka guztiak zerbaitetan bat etortzen al dira?

Nire ustez gatazka guztiak gauza batean bat etortzen dira: gatazka guztietan herriak, gizarteak, sufritzen du. Politikoek eragiten, bultzatzen, dituzte gatazkak eta herriak dira gatazkak sufritzen dituztenak.

Nola ikusten duzu Irakeko kontua?

Hau bai kontua!!! Berriro diot, sarraski baten aurrean ezer ez egitea konplize bihurtzen zaitu. Hori dela eta, gerraren aurka apirilean eta maiatzean Bartzelonan antolatu ziren manifestaldietan parte hartu nuen eta Gerrarik Ez ohiukatu nuen eta egiten dut. Hangoa lotsagarria da. Okerrena, arriskutsuena, gaur arte nazioarte mailan zeuden oinarrizko arau askoren aurka dihoala da.

> "Irakeko gerra gaur arte nazioarte mailan zeuden oinarrizko arau askoren aurka doa"

Komunikabideen agendak, lan egiteko moduak... zer eragin du? Egun, Kosovoz ez da ia hitz egiten... nola ikusten duzu komunikabideen papera?

Komunikabideek, egunkariek batik bat, orokorrean ideologia konkretu batzuk jarraitzen dituzte eta beraien menpe daude. Oso zaila da kontrainformazioa delakoa lortzea eta, noski, horren eraginez mendebaldean ditugun gobernuak eta fenomeno politikoak ateratzen dira. Nik, irakurleei txikitatik, eskoletan, "entrelineas" irakurtzen irakatsiko nieke. Telebistarena, berriz, beste kontu bat da. Hau lotsa! Munduko gehiengoak nazioarteko informazioa telebistaren bidez lortzen du, hau da, bi minutu, ideia soil bat. Eta horrela gabiltza, inongo sakontasunarik gabe eta askotan etorkizunerako planik gabe. Mundua "telebistatu" egin da, Irakeko gerra telebistarentzat egin zen, bi minutu, ideia bat, "gerra irabazi", eta gero etorkizunerako planik ez.

Etorkizurena begira zer asmo dituzu?

Ba ni ere "telebistatu" egin naiz eta asmo handirik ez dut. Hala ere, etorkizun motzean urte bat hementxe ematea gustatuko litzaidake eta, neska eta biok akordio batera iristen bagara, beste urte bat ikasten pasa. Mundu honetan sartzen zarenean, zure mugak eta prestakuntza falta ikusten dituzu. Hala ere, etorkizunean, Euskal Herrian giza eskubideen arloan zer edo zer egitea gustatuko litzaidake. Ea han jasotako esperientzia gure herriarentzat baliogarria den.

Langileen urteetako ah zapuztuko duen

Apirilean Irimo lantegiaren itxiera proze eta langileak Gasteizera joango d

Datorren urteko apirilean, 70 urte luzetan ehundaka urretxuar eta zumarratarren lantegia izan den Irimok ateak itxiko ditu. Urretxuko lantegiak irabaziak ematen dituen arren, Irimoren jabea den Snap-on multinazional estatubatuarrak produkzioa Gasteizera eramatea erabaki du antolaketaren hobetzea eta kostuen minimizazioa medio. Langileek lantegiaren jabeek eskainitako baldintzak onartzea adostu dute, lantegiaren itxieraren kontra tematuz gero egoera

alegina itxiera

sua hasiko da ra lan egitera

okertu daitekeela ikusten baitute. Hala, langile batzuk jubilatu egin dira eta gainontzeko gehienak (100 inguru) egunero Gasteizera joango dira lanera. Hamarkada luzeetan lantegira oinez joatetik autobusean egunero ordu pare bat ematera pasako den langileetako bat Juan Antonio Torner dugu. Torner Irimoko enpresabatzordeko idazkaria da eta langileak zein egoeratan gelditzen diren, lantegiaren itxiera nola bizi duten eta itxierak herrian zein eragin izan dezakeen azaldu digu.

Juan Antonio Tornerrek saminez, nola bestela, hitz egiten du Irimoren itxieraz. "Itxiera ez da emaitza ekonomiko kaxkarren ondorioa, hori da tristeena. Urterik zailenetan entrepresa bizirik mantentzeko gorriak ikusi ditugunok, emaitza onak dauden garaian Irimo nola ixten den ikusi behar dugu. Dena den, lanpostuak mantentzen dira eta hori ere zerbait da".

Langileek Irimo zabalik mantentzeko saiakerak egin dituzten arren, itxiera saihestezina da. "Eurotools-eko zuzendaritzak (Acesa, Palmera, Irazola eta Irimok osatzen dute Eurotools) Urretxuko planta mantentzeko asmoa erakutsi digu sarritan, baina, azkenean, Irimo itxi eta langileak Gasteizera joan beharra dugula esan digu. Itxieraren aurka tinko azaltzen baginen ez zutela Irimo itxiko, baina hemendik urte pare batera amerikar laguna (Eurotools-en jabea den Snap-on multinazionala) etorriko zela eta horrek zirt edo zart itxiko zuela esan ziguten. Zirt edo zart ixteak, langile batzuk Gasteizera eta gainontzekoak kalera bidaltzea suposa dezake".

Irimoko langileek ez dute instituzioen laguntza jasotzerik izan. "Eusko Jaurlaritzak ez du gu laguntzeko asmorik izan, Euskal Autonomi Erkidegoan jarraituko baitugu. Foru Aldundiak, berriz, Snap-on-i Eurotools erosteko erraztasun guztiak eman zizkion; honek Foru Ogasunarekin genuen zorra kitatu behar baitzuen. Orain, Eurotools-ek Aldundiari egoera azaldu dionean, berehala zereginik ez dagoela esan du. Hala, Urretxu eta Zumarragako Udalen babesa soilik izan dugu. Pello Gonzalez izan da Udalen ordezkaria eta enpresa zabalik mantentzeko borrokatzen baginen ahal zuen neurrian lagunduko zigula, baina itxiera justifikatzeko eman dituzten arrazoien aurka borrokatzea oso zaila dela esan zigun".

Egoera honela, Irimoko langileek euren lanpostuei eustearekin nahikoa izan dute. "Ez dugu geure burua gehiago borrokatzeko moduan ikusi. Irimo ez dutela itxiko esatea erraza da, baina, nola borrokatu milaka kilometrotara dagoen nagusiaren aurka? hari bost axola guk Talgoa gelditzea! Hori dela eta, Eurotools-eko zuzendaritzarekin negoziatzea adostu genuen ahobatez, lekualdatzea ahalik eta baldintza onenetan eman zedin".

Langileak, orohar, konforme daude urtebete luzeko negoziaketen ondoren lortutakoarekin. "Hobetzen ezinezkoa zen puntura iritsi ginela uste genuenean, asanbladan eztabaidatu genuen eta proposamena onartzea erabaki genuen. Beste irtenbiderik ez genuen ikusten. Izan ere, legeak lekualdatzeak bizitoki aldaketa dakarrenean soilik babesten du langilea. Lekualdatzea apirilaren 1etik irailaren 1era emango da: lanpostu-rik ez da galduko, entrepresak bi autobus jarriko ditu egunero Gasteizera joateko, entrepresak ordainduta bazkalduko dugu Gasteizen, bidaian emango dugun denboragatik diruordaina jasoko dugu, Geroa aurreikuspen-erakundearekin dugun hitzarmenak bere horretan jarraituko du eta errelebu-kontratua sinatu dugu 60 urterekin jubilatu ahal izateko. 123 langile gara, hauetatik 12 bat behin-behinekoak dira eta joatekotan beste baldintza batzuekin joango dira. Gainontzeko guztiak ere ez gara joango. Izan ere, batzuk jubilatu egingo dira eta beste batzuk baja sustatua hartuko dute. 100 langile inguru joango gara Gasteizera".

> Enpresa mantentzeko gorriak ikusi dituzten langileek, emaitza onak daudenean, ixten ikusiko dute

Irimoko langileek diru gehiago irabaziko dute, baina bizi-kalitatea galtzearen truke. "Gazte batzuk, beharbada, Gasteizera joango dira bizitzera, horretarako dirulaguntzak baitituzte, beste batzuk dirua hartu eta beste lan bat lortzeko saiakera egin dezakete... Izan ere, gazteentzat oso gogorra da 30 urtetan egunero Gasteizera joan beharko direla onartzea". Adinean aurrera doazenak, berriz, jubilazioa noiz helduko irrikaz izango dira. "Nire adineko jendearentzat, urtetan lanera oinez joan garenontzat, egunero Gasteizera joatea zerrikeria da. 50 eta 60 urte bitartekoak errelebu-kontratuari begira

gaude jada. Gelditzen zaizkigun lan urteak lehenbaitlehen pasa daitezela eta 60 urterekin ospa! Dagoeneko jubilatzeko gogoa bagenuen, orain zer esanik ez! 30 edo 40 urtetan bizitza mota bat izan dugu eta, orain, guztiz aldatu beharra dugu. Gainera, kontu honen inguruan gure arteko eztabaidak sortu dira eta laneko giroa gaiztotu da".

Apiriletik aurrera, hamaika ordu inguru pasako dituzte egunero etxetik kanpo. Hau, zenbait kasutan, bereziki gogorra izango da. "Emazteek apenas izan gaitzakete gogoan ezertan laguntzeko. Batzuek senarraren beharra izan dezakete eguerdian zer edo zertan laguntzeko eta orain etxetik kanpo izango dira".

Baina Irimoren itxiera ez da langileentzat soilik izango kaltegarria, dagoeneko Urretxu eta Zumarragan ere kalteak eragin baititu. Izan ere, bi herriotako gazteak ezin dira jada Irimora lan bila joan. Juan Antonio Tornerrek esan digunez, azken urteetan 30 gazte inguruk kontratu iraunkorra lortu zuten. "Krisitik atera ginenetik, 30 gaztek kontratu iraunkorra lortu dute eta datozen urteetan gehiagok lortuko lukete errelebu-kontratuari esker. Teorian, aurrerantzean ere Urretxu edo Zumarragako gazteek Irimon lan egin dezakete, baina etxetik 50 edo 60 kilometrora. Aukera hori izatea ezer ez izatearen parekoa da".

Madaya, Rodriguez, orain Irimo... enpresa handi samar gehiegi itxi dira azken hamarkadetan bi herriotan eta ez da ordezkorik sortu edo etorri. "Norbaitek Irimoren lursailean zer edo zer egiteko asmoa izango du... pabiloiren bat erabilgarria dela iruditzen zait. Ea zerk ordezkatzen duen Irimo! Ez dakit industrialdea handitzeko balioko duen edo ezer egingo den. Lursail horretan dozena erdi tailer txiki irekitzen badira, bada zer edo zer. Dena den, Urretxu-Zumarragan ikusten dudan gabeziarik handiena MCC ez dela sartu da. Instituzioek zer edo zer egin beharko lukete hona ere etor dadin".

Pello Gonzal aurretik Udala

Lantegi baten itxiera, langileentzat ez ezik, herriarentzat ere galera handia da beti. Hala, kasu honetan, Pello Gonzalez Urretxuko alkateak hainbat bilera izan ditu Irimoko langileekin eta Eurotools-eko zuzendaritzarekin itxiera saihesteko ahaleginetan. Urretxuko Udalak betetako paperaren eta aurrerantzean emango dituen pausuen berri izateko, alkatearekin hitz egiten izan gara.

Zein pausu eman ditu Udalak kontu honetan guztian?

Gure helburua lantegia herrian mantentzea zen, noski. Josu Jon Imazekin eta Roman Suduperekin harremanetan jarri ginen, baina Eusko Jaurlaritzak gaia berehala alboratu zuen, enpresa Euskal Autonomi Erkidegoan gelditu behar baita. Foru Aldundiak eta Udalak ahal genuena eskaini genuen,



Langileek ospetsu egin dute

Irimo 1927an sortu zuten Iñurritegi eta Larreategik. 1930ean Jose Luis Aparicio sartu zen entrepresan eta 1939an Jose Luis Aparicio y Cía. S.L. izena hartu zuen. Ondoren, enpresak Aparicio Hermanos S.A. eta Irimo S.A. izenak izan zituen.

Irimo multinazional baten eskuetara eta, azkenean, ixtera eraman duten arazoak 1977-78an hasi ziren; entrepresa sekula pairatu duen krisi handienean sartu zenean. Sektorearen krisi honek Madaya eta Rodríguez enpresen itxiera eragin zuen eta Irimo ere kinka larrian izan zen. Juan Antonio Tornerrek ondo gogoratzen duen moduan, ordurako Irimon lanean ari baitzen, "ordainketa-etendurak, lanordudoiketak, kontratu-etendurak... eman ziren eta enpresa sozietate anonimo laborala (S.A.L.) izatera pasa zen. Guztiok norabide berean borrokatu behar genuela ikusi genuen eta nolabaiteko lezioa eman genuen. Izan ere, erortzen lehenak izango ginela zirudien, baina, urteetan etxera soldata miserablea eramanez, zutik mantentzea lortu genuen".

Entrepresa langileen eskuetara pasatzeak, ordea, ez zituen Irimoren arazoak guztiz konpondu. "1982an, jendea sektorearen egoera oso txarra zela, konponbidea ez zegoela Irimoren esku eta beste entrepresa batzuekin elkartu beharra zegoela esaten hasi zen. Honela, Gasteizko Acesa eta Irungo Palmerarekin elkartu ginen. Fabrikazioa banatzeko hasi eta, 1986an, entrepresa bakarra izatera pasa ginen: FAVAHE. 90eko hamarkada hasieran Irimoko lan-

z: "Irimoren jabeek enpresa nori saldu erabaki en iritzia aintzat hartuko dutela agindu digute"

baina ez zen akordiorik izan. Azken erabakia langileen esku gelditu zen eta hauek enpresaren proposamena onartu zuten.

Zein egoeratan dago Irimo enpresaren lursaila eta eraikina?

Irimoko gerentziak, enpresak Urretxun dituen aktiboak saltzeko asmoa du. Guk lursail horrek industri kalifikazioa duela eta aldatzeko asmorik ez dugula esan genien. Beraz, bertan merkatal, industri edo enpresa zerbitzu arloko zer edo zer egin daiteke, egungo eraikina mantenduz edo berria eginez. Oraingoz, Irimori baliorik ez duten hainbat makina eta tresna eskatu dizkiogu Lenburren museorako.

Ba al dakizu norbaitek Irimo erosteko asmorik azaldu duen?

Zatiren bat erosi, guztia erosi, merkatal-guneren bat jarri dezaketenen... deiak, tartean enpresa handiren batena, izan dituztela esan digute. Nik noiz, nola eta nori saldu erabaki aurretik Udalarekin harremanetan jartzeko eskatu diet. Eurek, Udalaren iritzia aintzat hartuko dutela agindu digute. Diru aldetik antzerako eskaintzak badaude, erabakian zeresana izan nahi genuke.

Nori saltzea gustatuko litzaiozuke?

Herrian galtzen diren lanpostuak berreskuratu nahi genituzke. Eskaintzetako bat informatika logistika soilik duen biltoki handi batena bada eta bestea langile asko behar dituen enpresa batena, bigarrenaren aldeko apustua egingo dugu, noski. Ea lanpostuak sortuko dituen enpresa bat etortzea lortzen dugun. Halako enpresa batek interesa erakusten badu, Urretxura etortzeko erraztasunak eman diezaiozkegu (egungo lantegia handitzeko, adibidez).

Azken hamarkadetan herrian enpresa handi samar batzuk itxi dira eta ez da, ordea, inor etorri...

Errealitate ekonomikoaren aurka borrokatzea alferrikakoa da. Enpresa eredu zaharkituak desagertzera doaz. Inguruan izan ditugun 500, 600, 1000... langileko enpresarik ez dago jada ia. Salbuespenetako bat Irimoren tokia hartzea gustatuko litzaidakeen MCC da. Mugitegin batazbeste laupabost langile dituzten 60 enpresa ditugu eta ia Orbegozok adina langile ematen dizkigute. Orbegozo euro eta dolarraren arteko gora-beheren menpe dagoenez, oso egoera desegonkorrean dago. Enpresa txikien ereduak ondo funtzionatzen du eta Irimoren lursailerako aukeretako bat da. Izan ere, hainbeste enpresa pikutara joan daitezen gauzak oso gaizki joan behar dute. Oso zaila izango da enpresa bakarrak Irimoren tokia hartzea, baina enpresa txiki askok Irimok zituen adina langile izan ditzakete.





markak langileak irentsi ditu

gileok gure akzioak ia hutsaren truke saldu eta FAVAHE sozietate anonimoa izatera pasa zen. Momentu horretan,

Snap-on-ek Eurotools erosi zuenetik, langileek hau gertatuko zen susmoa zuten

forja eta erreminta sailak banandu egin ginen. Forja SFP taldean sartu zen eta guk FAVAHEn jarraitu genuen. 1995 hasieran FAVAHEk egun duen izena hartu zuen: Eurotools. 1995 urte amaieran, Snap-on multinazional estatubatuarrak Eurotools erosi zuen europar merkatuan sartzeko. Snap-on multinazionalak milaka langile eta marka piloa ditu mundu osoan zehar".

Snap-on taldean sartzearekin batera, langileek gertatu dena gerta zitekeenaren susmoa hartu zuten. "Urretxukoa Eurotools-en planta txikiena zen, baina Eurotools eta Snap-on-en arteko aldea handia da. Hala, Snap-on-en sartzeko jarri genuen baldintzetako bat Eurotools-en planta guztiak mantentzea zen. Izan ere, ez dakit zein multinazionalak milaka langile dituen entrepresa itxi duela irakurtzen duzu sarritan egunkarian eta bagenekien hau gerta zitekeela. Orainarteko erabaki guztiak irtenbide bakarra zirelakoan hartu ditugu, baina markarentzat soilik izan dira irtenbidea. Hala, markak jarraituko du, baina lantegiak ez".

Mari Jose Bermejo: "G lekuan, herriak etorkizun

2004. urtearen berri izan nahi duen lagun asko doa

Gabonak heltzearekin bat, guztiok urte berrian pentsatzen hasten gara: aurtengoa baino hobea izango al da? familikoei eta lagunei ezer txarrik ez dagiela gerta behintzat... Herritar asko, galdera hauen erantzuna topatu nahian, adimenaren bitartez gertaerak ikusteko dohaina duen Mari Jose Bermejo urretxuarrarengana doaz egunotan. Mari Jose lanez gainezka dabil, baina tartetxo bat egin digu bere dohainez eta 2004an gerta daitekeenaz hitz egiteko.

Mari Jose Bermejok urte asko daramatza lan honetan eta, dagoeneko, guztiok errespetatzen dugu bere lan iharduera. Baina, hasieran, beretzat ere ez zen batere erraza izan klaribidentzia izena duen dohain berezi hori zuela onartzea. "Hasiera batean, arrotza egiten zitzaidan mundu hau, nik ere ez nekien zer zen gertatzen zitzaidana. Urte haietan herrian ez zen gai hauei buruz hitz egiten eta zerbait gertatu behar zela ikusten banuen ere, ez nion inori esaten badaezpada. Baina, nire lehen haurra izan eta hil egin behar zitzaidala aurreikusi nuenean, benetan konsziente izan nintzen. Orduan ere ez nekien zer zen, baina argi nuen zerbait bazegoela. Arazoa, orduan, besteei esatea zen".

Hala ere, bere dohaina lantzen hasi zen eta pixkanaka demostratzen ere joan zen, ikusten zuen hura egia zela. "Orduan jada, zientzia ezkutuei buruz gehiago hitz egiten hasi arren, jendeak ez zuen erraz onartu horrelako pertsona bat herrian bertan izatea. Zientzia ezkutuen mundu hau sorginkeriarekin erlazionatu izan da, baina beti existitu diren kontuak dira, esate baterako, akelarreak. Gainera, gurea bezalako herri txikietan zailagoa da jendeak gai hauetan sinestea eta une askotan baztertua sentitu nintzen". Hala ere, berak argi izan du betidanik mundu guztiak ez duela honetan sinestu behar eta aukera hau ere errespetatu egiten du.

Nahiz eta hasiera batean bere dohain hau demostratu beharra izan bazuen ere, laster lortu zuen herritarren onespena desagertutako pertsonen kasuetan. Izan ere, jendea beregana joaten hasi zen laguntza eske eta berak ikusten zuenaren arabera, desagertuak zeu-

azteria dagoen paroa izango du”

gunotan Urretxuko igarlearengana

den inguruetara hurbildu eta egoerara egokitzen zen. "Pertsona horiek ondo ala gaizki, hilik edo bizirik, zeuden ere ikusten hasi nintzen. Orduan ni ere larritu egin nintzen. Izan ere, kasu hauek askoz serioagoak eta konplexuagoak ziren. Baina argi dut lan guztiek eskatzen dutela ardura minimo bat eta kasu batekin konprometituz gero, bukaeraraino lan egin behar dela".

Kasu hauetako bat bereziki gogoratzen du, "izan ere, herriko mutil baten desagerketari buruzkoa zen, Iñaki. Orduan bi herrien babesa jaso nuen eta emozio handiz gogoratzen dut, zoragarria". Mari Joserentzat herriko kasuek lehentasuna dute besteekiko, "herria, herria delako".

> “Harro nago egiten dudan lanaz, baina nahiagoko nuke jendeak bat gehiago bezala tratatzea”

Aipatu bezala, dagoeneko herritaren onespena lortu badu ere, jendeak beste aukera guztiak agortu dituenean jotzen du berarengana eta ordurako, denbora dexente igaro da. Zer egiten du norbaitek berarengana jotzen duenean? "Pertsona horri gertatu zaiona ikusten dut eta horretara mugatzen naiz. Esaterako norbait hilik dagoela ikusten badut, ez dut nork edo zergaitik hil duen argitzen. Hori ez baita nire lana". Mari Josek aitortzen du, noizbait erratu daitekeela, pertsona orok egiten dugun eran.

Bere kontsultara joaten den jendeak era askotako arazoak ditu: osasuna, amodio kontuak, ikasleen kasuan azterketak... "Askotan psikologo lana egin beharra ere izaten dut aholkuak emanez. Hori dela eta jendearekin harreman ona dut eta herrian maitatua sentitzen naiz. Bai herrian baita herritik kanpo ere. Harro nago egiten dudan lanarekin, baina hala ere, batzuetan nahiagoko nuke jendeak bat gehiago bezala tratatzea".

Zaila da, ordea, jendeak Mari Joserengana besteengana moduan jotzea; bere dohaina ez baita batere arrunta. Atzerrian ere bere dohainaren berri izan dute eta Euskal Herritik kanpo lan garrantzitsuak egin izan ditu. Jende benetan garrantzitsua joan da berarengana, baina argi du inoiz ez duela izenik emango eta denak berdin tratatzen ditu. "Kasuak kontatzen ditut, izenak ordea ez". Honek guztiak ospea eman dio eta telebistako programa batzuetara joan den arren, beste eskaintza asko baztertu egin ditu. "Orain dela gutxi Antena 3 katetik deitu zidaten baina ez nuen joan nahi izan, nahiago baitut lasai egon".

Halako igarle estimatuarekin izan eta datorren urtea zer nolakoa izan behar den ez galdetzea barkaezina litzateke... Mari Josek denetarik egongo dela esan zigun. Herriko gazteria goraipatu zuen, arduratsua eta sanoa bezala definitu zuen gainera: "gazteria dagoen lekuan herriak etorkizun oparoa izango du". Honez gain, Errealari buruz ere galdetu genion. Oso mutil guapoak direla eta nahiz eta orain ez dabilen oso ondo, negu partean golak etorriko direla esan zigun. "Baikorrak izan behar dugu eta ez da esperantza galdu behar", da Mari Joseren mezu nagusia.

MURUA
Oinetako konponketa
Larruzko erropen konponketa.
Guraiza,labana... zorrozketa
Labeaga, 37 URRETXU
Golden plazoletan

Secundino Esnaola, 16 B
Tel: 943 72 16 63
ZUMARRAGA


RENEDO argazkiak
Jaunartzeak • Bataioak • Ezkontzak
Labeaga 52-54 F URRETXU
☎725682 ☎722292

BAPRI
ANIMALIADENDA
Txoriak, arrainak, katuak, dordokak
Urdaneta, 3 ☎ 72 61 13
ZUMARRAGA

KABIA
JATETXEA
Legazpi, 5
☎943 726274
ZUMARRAGA

ZORIONAK!

Adivane, ea egunen batean zure izenaren nondiknorakoak argitzen dizkiguzun... Zorionak!

Ainhoa, urteean zehar behar bezala portatu ez zarelako kezkatua al zaude? Zorionak!

Ainhoa, oso irrifarre polita duzu, baina ea hurrengoan argazkilariari kasu gehiago egiten diozun!

Ainhoa, hori da hori irrifarrea! Argazkilaria ez, baina ingurukoren bat gustuko duzula dirudi!

Aitor, hori da hori zoriontsu aurpegia duzuna... Olentzerok zer oparitu behar dizun esan al dizu?

Ander, Olentzero datorrela eta txintxo plantak egiten ari al zara? Zorionak!

Anes, alboan duzun horrek "urtarrileko maldak" baino gehiago estutzen du! Zorionak!

Iñigo, inguruan dituzun horiek guztiak zure argazkilaria fitxatu beharko luke-te! Zorionak!



Ioritz, eskua ahoan sartuta egiten al duzu hitz? Zorionak eta ondo pasa urtebetetze eguna!



Jabier, Santa Lutziak direla, Gabonak direla, urtebetetze eguna dela... abenduan gustura ibiliko zara gero...

Jebi, ea egunen batean zure izena zein den esaten diguzun! Zorionak eta ondo ibili!

Jose Luis, eskerrak ez dizugun argazkia erditik zatitu, bestela... Zorionak eta ondo ibili!

Julen, zuk bai benetako txintxo aurpegia... ea Olentzero iritzi berekoa den... Zorionak!

Julene, ba al dakizu herrian bi optika ireki behar dituztela? Zorionak eta ondo pasa urtebetetze eguna!

Luis Mari, hori da hori zintzotasun aurpegia... Amabirjina azaldu al zaizu? Zorionak!

Maialen, hori da hori mototsa... Santa Lutzitako behorren isatsa dirudi... Zorionak!

Maialen, siestatik esnatu berria zinela atera al zizuten argazkia? Zorionak eta ondo ibili!

Mari Carmen, ez iezaguzu horrela begiratu oraindik ez gara zurekin sartu eta! Zorionak!

Maria, ez zara aterki beharrean izango... euria hasten bada senarraren ondoan jarri eta kitto!

Maria Jesus, hori da hori irrifarrea... "Maria Jexux bihotzekua..." abesten ari al zaizu norbait?

Miguel, hori da hori bihurri aurpegia duzuna... ikatza ekartzen badizuete ez zaitez gero kexatu!

Mikel, zer egiten duzu ahoa zabalik? Oraindik opariak eskatzen ari al zara? Zorionak!

Montse, hori da hori irrifarrea... Manuel Benitez "El Cordobes" dirudizu! Zorionak!

Patxi, zuk ere Olentzerori argazki kamera berria eskatu beharko zenioke... Zorionak!

Pilar, ez al diguzu irrifarre txiki bat eskaini behar? Oraindik ez dizugu adarrik jo eta...

Saioa, hori da hori zortea duzuna... argazkiak zu zeu baino azkarrago zahartzen dira!

Tomas, txapel eder hori buruan duzula ez zaizu ez kaxkarra bustiko... Zorionak eta ondo ibili!

Unai, aitaren kamerak ez al du flaxik? Ea Olentzerok berria oparitzen dion... Zorionak!

Xabi, beti txintxo aurpegia jartzen duzu ala Gabonetan soilik erabiltzen duzu?

Ane, eskulan klasean egin al duzu buruan daramazun zapia? Zorionak eta ondo ibili!

Aitor, hori da hori turista itxura... zu ere hilaren 13an Donostian izan al zinen? Zorionak!

Unai, bihurrikeria egin ondoren zintzo aurpegia jartzen ari al zara? Zorionak!

Udane, ea argazki txukunagoak ekartzen dizkiguzuen... ez dago zeintzuk zareten jakiterik eta!

KIRURJIA PLASTIKOA
KONPONTZAILEA
ETA ESTETIKA
orain
zergatik ez?
ALAZNE MANERO
sendagilea
Kol. zk.: 4658
RPS: 51/03
BELARRI BEREIZIAK, BETAZALETAN POLTSAK, BULARRAK HANDITZEA EDO TXIKITZEA, FALDOI ABDOMINALAK, GANTZ-PILAKETA LOKALIZATUAK, ERREDURAK, ALDE BIGUNETAKO TRAUMATISMOAK, AZAL-LESIOAK (ULTZERAK, KISTE SEBAZEOAK, NEVUS...)
KALTE ESTETIKOAREN BALORAZIOA
QUIRÓN Klinika Alkolea parkea 7 20012 DONOSTIA Tel. 943 437 113
ZUZENDU Zentroa Labeaga 33D 20700 URRETXU Tel. 943 725 262

Xabi Ormazabalek Takolo Beka jaso zuen igandean

Nahiz eta Urretxu-Zumarragan mendizale asko eta onak egon, bada azkenaldian besteen gainetik nabarmentzen ari den izen bat, Xabier Ormazabalena, alegia. Igandean, mendizale gazte honek Gipuzkoako Foru Aldundiak, Euskal Herriko Mendi Federazioak eta Azpeitiko Udalak finantzatzen duten Takolo beka jasoko zuen Azpeitian. "Elurretako gepardoa" egitasmoa aurrera ateratzeko eman diote Xabierri Joxe Takolo mendizalearen omenez eta "maila handiko eta orijinaltasunezko proiektuak" saritzeko asmoz antolatzen den beka hau.



Xabier Ormazabalek "Elurretako gepardoa"-ren titulua lortzeko duen proiektua aurkeztu zuen, Aconcagua-ra hegoaldeko paretatik igoera bat eta Shisa Pagmara joateko ametsarekin bat, eta espero zuenaren kontra, bere proiektua izan da aurtengo bekarekin saritua. Bere hitzetan, "proiektua ilusio osoz aurkeztu nuen, baina Euskal Herrian arlo honetan dagoen maila handia dela eta, ez nuen inolaz ere saritua ni izatea espero". Saria, proiektuaren originaltasunari zor diola dio, eta azken urteetan eman duen progresio handiari, zeinek jada bere lehen 8.000koari begira jarri duen.

"Elurretako geopardoa", Sobiet Batasun zaharreko bost gailur altuenak igotzen dituenari ezartzen zaion titulua da. Xabierrek dagoeneko bost gailur hauetatik hiru igoak ditu, Khan Tengri, Komunismo eta Pobeda, eta beka honek luzatzen dion dirulaguntzari esker hurrengo urtean jada ekin ahal izango die geratzen zaizkion bi gailurrei, Lenin (7.134) eta Korgenevskaya (7.105), hain zuzen.

Aipatzekoa da, gauzak doazen bidetik jarraituz gero, Xabier titulu hau jasotzen duen lehen euskaldunean bilakatuko zela, eta datu bezala esan daiteke ere, nahiz eta Chus Lago mendizale galiziarra bere horretan den, Espainiar estatuan oraindik ere ez dagoela 5 gailurrok igo eta tituluarekin egin den mendizalerik. Hala ere, "hori ez da helburua, ez da karrera bat" dio, titulu hau jasotzean duen lehen euskalduna izateak ilusioa egingo liokeela, baina helburu nagusia falta zitzaizkion bi gailurrak igotzea dela eta hori ez dela erraza izango. Ildo horretan, sari hau berari egokitu izana, bera eta bere proiektuarengan konfiantza dagoenaren erakusle dela uste du, eta horrek aurrera jarraitzeko indarra ematen dio.

Esan bezala, azken bi tontorren igoerari hurrengo urtean ekingo die; Lenini lehenik, eta Korgenevskayari hurrenik, biak ere hilabete bateko tartearekin. Bai lehena eta bai bigarrena Pamir mendilerroan kokatzen dira, 100 kilometrotako distantziara, baina batetik bestera joateko denbora behar da, egin beharreko bidea malkartsua baita.

Behin helburu nagusia lortuta eta titulua poltsikoan izatean, proiektuaren bigarren zatian pentsatzen hasiko dela dio, hau da, Akonkaguaren hegoaldeko paretan, eta Shisa Pagmara igoeran. Lehena "disfrutatzeko" igoera bezala definitu du, eta bigarrena "amets" legez, baina argi dagoena da horrela jarraituz gero ametsak errealitate bihurtzeko aukera guztiak dituela. Asko izan dira Xabierrek eta irteera ezberdinetan lagundu diotenek jasandako gorabeherak (gorpu baten erreskatea ere aipa daiteke hauen artean), baina badirudi ez dagoela geldituko dituenik. Pirineoetatik Alpeetara, eta hauetatik Pamirrera izan ziren lehen bi salto nagusiak, eta hurrengoa jada Himalayako zortzimilako altuetan kokatzen da, han, non izarrak eskuekin uki daitezkeela dirudien. Ea zortea lagun duten, eta proiektua inolako ezbeharrik gabe gauzatu ahal duten.

Baltasar

Lehengo batean ezusteko telefono deia jaso genuen Otamotzeko erredakzioan: Baltasar errege magoaren mutila zen. Baltasarren mutilak bere nagusiak gurekin hitz egin nahi zuela esan zigun eta, guk, berarekin gustura hitz egingo genuela erantzun genion, noski.

Zer ote nahi zuen gugandik horren pertsonaia handiak? Baltasarrek, gure aldizkariaren bitartez, Urretxu eta Zumarragara etortzen den bakoitzean laguntzen dioten Zumardi elkarteko kideei esker ona adierazi nahi ziela esan zigun. Otamotzekook, baietz, bere mezua zabalduko genuela, baina horren truke galdera batzuk erantzuteko eskatu genion. Izan ere, halako aukera pasatzen utziko bagenu, garena baino kazetari kaxkarragoak izango ginateke! Baltasarrek pazientzia handiz eta umore handiz erantzun zituen gure galdera xelebre guztiak. Elkarrizketa bukatu ondoren, aurten ere osasuna eta lana oparituko digula esan zigun. Osasun ona beharko dugu, bai, hainbeste lan egiteko!

-Zer izan nahi zenuen umetan?

Txikitatik oso argi nuen zer izan nahi nuen: umeen laguna.

-Errege magoa ez bazina, zer gustatuko litzaizuke izatea?

Sendagilea, munduan mediku faltan dauden haur asko baitaude zoritxarrez.

-Gabonetatik kanpo, zer egiten duzu?

Gabonetarako prestatu. Izan ere, urte osoa behar da haur guztientzat behar adina opari biltzeko.

-Urretxu eta Zumarragako neska-mutikoak ondo portatu al dira aurten?

Haur guztiak oso ondo portatzen dira beti. Arazoak handitzen direnean heltzen dira.

-Zapata zikinak uzten dituzten haurrei oparirik egiten al diezu?

Bai, baina notatxo bat uzten diet hurrengo urtean garbi utzi ditzaten eskatuz.

-Zein da gehien eskatu duten oparia?

Realaren jantzia, iazko denboraldian oso ondo aritu baitzen.

-Ba al dago sekula lortzerik izan ez duzun oparirik?

Urte batean patineteak bukatu egin ziren eta arazoak izan genituen.

-Zer esaten dizute haurrek aurrez aurre dituzunean?

Ez dute ia ezer esaten, zirrara handia egiten baitie ni ikusteak. Haurren aurpegia ikusteak urte osoko lana merezi du. Zoragarria da.

-Zer mokadu nahi duzu haurrek uztea?

Txanpaña oso gustura hartzen dut, batez ere fresko-freskoa badago.

-Asko aldatu al dira haurrak?

Umeak beti ume izango dira.

-Zer da mirra?

Niri intzensua eramatea suertatzen zaidanez, egia esan, nik ere ez dakit mirra zer den.

-Behorrean ala zaldian joaten zara?

Duela gutxirarte behorra nuen eta orain, berriz, zaldia. "Txuri" du izena.

-Beltz batzuek arazoak izaten dituzte herrialde batetik bestera joateko, zuk ere bai?

Euskal Herrian sartzeko sekula ez dut arazorik izan.

-Olentzero ezagutzen al duzue?

Bai, oso harreman ona dugu berarekin. Noizean behin berarekin afaritxoren bat egiten dugu Euskal Herriko berri izateko.

-Norekin konpontzen zara hobe, Meltxorrekin ala Gasparrekin?

Biekin ondo konpontzen naiz, ez dugu inongo arazorik.

-Azkenaldian beste Baltasar bat, Garzon alegia, zu baino ezagunagoa egin da... Ez da, gainera, urtean behin soilik azaltzen...

Horri ikatza eramaten diot, nire izen bera duen arren. Mundua hobe joango litzateke ni egunero eta hura urtean behin soilik azalduko balitz...

-Erregea bai, baina monarkikoa al zara?

Ez gaude bestelako erregeen kontra, baina gure antza handiagoa izan beharko luketela uste dugu.

-Zer iruditzen zaizu Espainiako printzearen ezkontzak sortu duen zalaparta?

Ez gara horrelakoez enteratzen eta ez dut uste bere ezkontzara gonbidatu gaituztenik.

-Bukatzeko, emazterik ba al duzue?

Ez dugu emazterik eta ez dut uste izango dugunik. Izan ere, ez dut uste inork 2000 urtetik gora duen batekin ezkondu nahiko duenik.

Gabon garaia, gure artera
Ailegatu zaigu berriz
Bake giroan ta itxaropenez
Ospatutzeko egarriz
Nagusi bedi giro goxoa
Alaitasun eta irriz
Kemena horretan jarriz.

URRETXU
ZUMARRAGA
IKASTOLA

Ondo pasa gabonak!

Urretxuko giroa!!

Urretxuko Tabernariak

Florida • The Intrepid Fox • Laket • Motz
Goiko-Kale • Ezkurra • Navarro • Osaba
Avenida • Buhame • Aldapa

Urte berri on!